



# JUNTAS GENERALES DE ALAVA

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

### SUPLEMENTO

al Boletín Oficial  
del Territorio  
Histórico de Álava

### GEHIGARRIA

Araba Lurralde  
Historikoaren  
Aldizkari Ofiziala

2010eko abenduaren 29a, asteazkena

ZENBAKIA **147** NÚMERO

Miércoles, 29 de diciembre de 2010

#### ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

8227

**2010/15 Foru Araua, abenduaren 20koa, 2011. urterako zerga neurrei buruzkoa.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2010eko abenduaren 20an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

#### **2010/15 FORU ARAUA, ABENDUAREN 20KOA, 2011. URTERAKO ZERGA NEURREI BURUZKOA**

##### ZIOEN ADIERAZPENEA

Zerga neurriei buruzko foru arau honen helburuetako bat da zerga sisteman hainbat neurri ezartzea egungo krisiak Arabako Lurralde Historikoko ekonomian izan duen eragina arintzeko. Helburu osagarri bat ere badu foru arau honek: araudian zenbait aldaketa egitea, tributuen aplikazioan eta zerga iruzurraren aurkako borrokan eraginkortasun handiagoa lortzearen.

Zerga politikak ezin dio iskin egin ekonomiak egun bizi duen atzeraldiari, krisia orokorra dela mundu osoan. Ekonomia noraezean dabilela, Arabako Lurralde Historikoko erakunde eskudunek zerga neurri batzuk ezarri dituzte foru arau honetan krisi ekonomikoaren ondorioak arintzeko, batez ere krisiak gehien kolpatu dituen herri-tarrak gogoan hartuta.

Lurralde Historikoko erakundeak gizarte egoera ahulean dauden taldeen alde zerga bilketan egiten ari diren sakrifizioarekin bat, foru arau honek beste kenkari bat ezarriko du Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan 2011ko ekitaldian errentak eguneratuko ez zaizkien pentsiodun eta langabeentzat. Hain zuzen ere, Gizarte Segurantzaren eta Klase Pasiboaren araubide publikoetatik pentsioak eta hartzeko pasiboak edo langabeziagatik hartzekoak jasotzen dituzten zerga-

#### JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

8227

**Norma Foral 15/2010, de 20 de diciembre, de medidas tributarias para el año 2011.**

Las Juntas Generales de Álava, en su sesión plenaria celebrada el día 20 de diciembre de 2010, ha aprobado la siguiente Norma Foral:

#### **NORMA FORAL 15/2010, DE 20 DE DICIEMBRE, DE MEDIDAS TRIBUTARIAS PARA EL AÑO 2011**

##### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La presente Norma Foral de Medidas Tributarias tiene entre otros objetivos el establecimiento de diversas medidas en el sistema tributario tendentes a minimizar las consecuencias que la actual coyuntura está produciendo en la economía de este Territorio Histórico. Como objetivo complementario al anterior, esta Norma Foral introduce una serie de modificaciones normativas en aras a lograr una mayor eficiencia en la aplicación de los tributos y una mayor eficacia en la lucha contra el fraude fiscal.

La política fiscal no puede ser ajena a la situación de desaceleración actual de la economía que se inscribe en un contexto de crisis generalizada a nivel mundial. En este marco económico incierto, las instituciones competentes del Territorio Histórico de Álava intentan paliar, a través de las diversas medidas tributarias contenidas en esta Norma Foral y dirigidas a aquellos colectivos más perjudicados por la crisis económica, los efectos de la actual situación económica.

En línea con el sacrificio recaudatorio que las Instituciones del Territorio Histórico vienen realizando a favor de los colectivos mas desfavorecidos, esta Norma Foral introduce una nueva deducción en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas destinada a aquellos pensionistas y desempleados que, en el ejercicio 2011, no van a disfrutar de la actualización de sus rentas; en concreto, la deducción afecta a aquellos contribuyentes que perciban pensiones

dunei kopuru horien guztirako zenbatekoaren %1eko kenkaria aplikatuko zaie, baldin eta zerga oinarria 20.000 eurotik gorakoa ez bada.

a

Baina ez dira talde horiek krisi ekonomikoa pairatzen ari diren bakarrak: denoi eragiten digu. Horregatik, zergapekoen egoera ekonomikoa hobetzen laguntzeko eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga prezioen gorakadak etxeko ekonomietan eduki duen eraginera egokitzeko, Zergaren tarifa eguneratu da eta, orobat, Zerga batera ordaintzeagatiko txikipenaren eta familia kenkariaren eta kenkari pertsonalen zenbatekoak handituko dira.

Halaber, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren tarifak eguneratu dira, bai eta beraren oinarrian aplikatu daitezkeen txikipenen zenbatekoak ere.

Egoera ekonomikoak eragin zuzena du enpresek enplegua sortzeko eta sortutako lanpostuak mantentzeko duten ahalmenean. Enpresei laguntzeko, Sozietateen gaineko Zergaren araudian berriro sartu zen enplegua sortzeagatiko kenkaria, aldi baterako. Hala ere, enpresa askok sortutako lanpostuei eusteko ahalegin handiak egin arren, laneko agintaritzari sarritan eskatzen diote enplegu erregulazioko espedienteak eta lanaldia eteteko edo murrizteko espedienteak onartzeko. Enpresak egiten ari diren esfortzua aintzat hartuta, foru arau honen bidez Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 45. artikulua aldatu da eta ondorioz ez dira kontuan edukiko enplegu erregulazioko espedienteen bitartez onartutako lan harremanen etendurak eta lanaldien murrizketak (Langileen Estatutuetan araututakoak).

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, Arabako zerga araudia aplikatzen zaizen kapital aldakorreko inbertsio sozietateen zerga tasa berezia ezabatzearen ondorioz kautela batzuk ezarri behar dira lurralde honetako zerga araudiaren arabera inguruko beste zerga sistema bateko legerian ezarritako tasa txikituen onura aplikatzen duen halako sozietate baten bazkide diren zergadunentzat.

Toki zergei dagokienez, eta zehatzago Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga hizpide hartuta, aipatu behar da behinola aldaketa bat sartu zela ezinduentzako turismo ibilgailuen salbuespenaren aplikazioa murrizteko (ezintasun handikoei eta mugitzeko arazo larriak dauzkatenei bakarrik aplikatzea) eta potentzia handiko ibilgailuak ez salbuesteko.

Nolanahi ere, pertsona ezinduen kasuan, joan-etorrietarako gurgildun aulkia erabili behar dutenek zail dutenez ibilgailuotara gurgil eta guzti sartzeko beharrezkoak diren mekanismoak dituzten ibilgailuak eskuratzea, ibilgailuon kasuan zerga zaldien mugen salbuespena egitea komeni da. Beraz, salbuespen hori aldatu behar da.

Foru arau honetan jasotzen diren arauketa berrien artean Sozietateen gaineko Zergaren araubide berezi berri bat nabarmendu behar da, hain zuzen ere higiezin merkatuko inbertsioetako sozietate kotizatuek beharrezkoak duten zerga esparrua ezartzen duena. Sozietateok higiezin merkatuan eta, zehatzago, alokairuen merkatuan inbertitzeko tresna berriak dira. Sozietate hauen jarduera nagusia hiriko aktibo higiezinetan zuzenean zein zeharka inbertitzea da, alokatzeko. Higiezinok izan daitezke: etxebizitzak, merkataritzako lokalak, egoitzak, hotelak, garajeak eta bulegoak, besteak beste. Zerga araubide horren xedea da alokairuaren merkatua bultzatzea, herritarrek higiezin jabetza lor dezatela errazte, araubide hori inbertsiogile txikientzat erakargarri bihurtzea eta higiezin merkatua dinamizatzea, eta, halaber, inbertsioaren errentagarritasun egonkorra ematea inbertsiogileari.

y haberes pasivos de los regímenes públicos de la Seguridad Social y Clases Pasivas o percepciones por desempleo, y consiste en una deducción del 1 por ciento sobre el rendimiento íntegro del trabajo computado por tales percepciones, siempre y cuando su base imponible sea igual o inferior a 20.000 euros.

No sólo los citados colectivos están sufriendo la crisis económica sino que la misma tiene un carácter global. Por este motivo con el fin de contribuir a mejorar la situación económica de los obligados tributarios y adecuar el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas al efecto que el alza de los precios ha producido en las economías domésticas, se procede a la actualización de la tarifa del Impuesto, así como a la elevación de las cuantías de la reducción por tributación conjunta y de las deducciones personales y familiares.

También en el ámbito del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones se actualizan las tarifas del Impuesto y la cuantía de las reducciones que procede aplicar en la base imponible.

La situación económica tiene una influencia directa en la capacidad de las empresas tanto para crear como para mantener el empleo creado. Con la finalidad de coadyuvar a las empresas, se reintrodujo con carácter transitorio la deducción por creación de empleo en la normativa del Impuesto sobre Sociedades. Sin embargo, a pesar de los esfuerzos que muchas empresas están realizando para mantener el empleo creado, son frecuentes las solicitudes a la autoridad laboral de la aprobación de expedientes de regulación de empleo, de suspensión o de reducción de la jornada laboral. En atención al esfuerzo que están realizando las empresas, la presente Norma Foral modifica el artículo 45 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, en el sentido de no tener presente las suspensiones de la relación laboral y las reducciones de jornada a que se refiere el Estatuto de los Trabajadores autorizados como consecuencia de expedientes de regulación de empleo.

También por lo que se refiere al Impuesto sobre Sociedades, la supresión efectuada en su momento del tipo impositivo especial para las Sociedades de Inversión de Capital Variable sometidas a la normativa tributaria de Álava requiere el establecimiento de una serie de cautelas para los contribuyentes, que aplicando normativa tributaria de este Territorio Histórico, sean socios de alguna entidad de esta naturaleza que se beneficie de los tipos reducidos que se establecen en la legislación de otros sistemas tributarios de nuestro entorno.

En cuanto a la imposición local, y, en concreto, al Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica hay que señalar que en su momento se introdujo una modificación dirigida a ponderar la aplicación de la exención del Impuesto a vehículos de turismo en el caso de personas con discapacidad, de forma que sólo a los casos de discapacidad más grave o con problemas de movilidad aquella fuera aplicable, a la vez que no se eximía a los contribuyentes que tuvieran vehículos de gran potencia.

Sin embargo, la dificultad por parte de las personas discapacitadas con problemas de movilidad, necesitadas de utilizar sillas de ruedas para su desplazamiento, para adquirir vehículos con los mecanismos necesarios para el acceso a los mismos con dichas sillas, aconseja excepcionar la limitación de los caballos fiscales en dichos vehículos. Es por ello que se procede a modificar la exención citada.

Entre las regulaciones novedosas contenidas en la presente Norma Foral, destaca un nuevo régimen especial en el Impuesto sobre Sociedades, dedicado a establecer el marco fiscal necesario para las Sociedades Cotizadas de Inversión en el Mercado Inmobiliario, sociedades que configuran un nuevo instrumento de inversión destinado al mercado inmobiliario y, más en concreto, al mercado del alquiler. La actividad principal de estas sociedades es la inversión, directa o indirecta, en activos inmobiliarios de naturaleza urbana para su alquiler, incluyendo tanto viviendas, como locales comerciales, residencias, hoteles, garajes u oficinas, entre otros. El régimen fiscal tiene por objetivo impulsar el mercado de alquiler, facilitar el acceso de los ciudadanos a la propiedad inmobiliaria, hacer atractivo el régimen para los pequeños inversores y dinamizar el mercado inmobiliario, facilitando al inversor una rentabilidad estable de la inversión.

Arabako Lurralde Historikoan higiezin merkatuko inbertsioetako sozietate kotizatuen zerga araubide berria indarrean jartzeak berekin dakar aldaketa batzuk egin behar izatea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergan: besteak beste, zenbait neurri ezarri behar dira sozietate horietako bazkidea edo partaidea zerga bien zergadun denerako.

Jokoaren gaineko Zergaren esparruan aipatu behar da bingoaren gaineko karga tasa aldatu dela.

Zergen kudeaketa eta iruzurraren aurkako borroka hobetzeko neurrietan bi azpimarratu behar ditugu. Batetik, ofiziozko behin-behineko likidazioen izapideak azkartuko dira; bestetik, Zergei buruzko Foru Arau Orokorriari xedapen gehigarria erantsiko zaio katastroko erreferentzia kontratu eta agiri publiko zein pribatu guztietan agertu behar izateko.

## I. KAPITULUA ZERGEN FORU ARAU OROKORRA

1. artikulua. Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra aldatzea.

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorreko xedapen hauek aldatu dira:

Bat. 127. artikulua honela geratu da:

“127. artikulua. Ofizioz hasitako likidazio prozedura.

1. Zerga Administrazioak zergapeko bati errekerimendua bidaltzen badio arauzko epealdian aurkeztu ez duen autolikidazioa edo aitortpena aurkez dezan, errekerimendua jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete igaro ondoren behin-behineko likidazioa, zerga zorraren zenbatekoa zehaztuko duena, ofizioz egiteko prozedura abiarazi ahal izango du; nolahi ere, zergapekoak epealdi horretan eskatutakoa aurkezten badu edo aurkeztu beharrik ez dagoela frogatzen badu behar bezala, behin-behineko likidazio hori ez da egingo.

2. Aurreko idatz zatian xedatutakoa gorabehera, zergapeko batek arauzko epealdian aurkezten ez badu autolikidazioa edo aitortpena, Zerga Administrazioak hori egiteko errekerimendurekin batera behin-behineko likidazioa jakinarazi ahal izango dio, baldin eta interesdunak berak aurkeztutako egitateak, alegazioak eta frogak edo gainontze-koek zerga ordenamenduan ezarritako aitortu behar orokorra betetzeko aurkeztutakoak baizik ez badira kontuan hartu hura egiteko, edo Zerga Administrazioak dauzkan datuak, aurrekariak, zeinuak, indizeak, moduluak eta gainerako elementuak. Honelakoetan, Administrazioak bidalitako behin-behineko likidazioak errekerimendua eta likidazioa batera jakinarazi eta hurrengo egunetik hilabete pasatutakoan sortuko ditu ondorioak.

Hala ere, hilabeteko epealdi horretan zergapekoak autolikidazioa edo aitortpena aurkezten badu edo behar bezala frogatzen badu ez daukala halakorik aurkeztu beharrik, behin-behineko likidazioa balio-gabetuko da eta Zerga Administrazioak horren berri adierazi eta jakinarazi beharko du.

3. Aurreko 1. idatz zatian aipatutako behin-behineko likidazioa egin aurretik, Administrazioak likidazio proposamena jakinaraziko dio zergapekoari, eskubidez komeni zaiona alega dezan. Izapide hori ez da beharrezkoa izango interesdunak bera autolikidazioen bidez eta errekerimenduen erantzunen bidez aurkeztutako egitateak, alegazioak eta frogak, edo gainontze-koek zerga ordenamenduan ezarritako aitortu behar orokorra betetzeko aurkeztutakoak baizik ez direnean kontuan hartzen.

Artikulu honetako 2. idatz zatian aipatzen diren kasuetan ez da beharrezkoa izango aurreko paragrafoan xedatutakoa.

4. Zerga zorra Zerga Administrazioak dituen datuak, aurrekariak, zeinuak, indizeak, moduluak eta zerga eragina duten gainerako elementuak kontuan hartuta zehaztuko da.

La introducción de este nuevo régimen fiscal en el Territorio Histórico de Álava dedicado a las Sociedades Cotizadas de Inversión en el Mercado Inmobiliario conlleva diversas modificaciones en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Impuesto sobre la Renta de no Residentes, incluyendo determinadas medidas cuando el socio o partícipe en estas sociedades sea contribuyente de los citados Impuestos.

En el ámbito del Tributo sobre el Juego destaca la modificación del tipo de gravamen aplicable al juego del bingo.

En cuanto a medidas que pretenden la mejora en la gestión tributaria y el perfeccionamiento en la lucha contra el fraude cabe destacar dos. Por una parte la agilización de los trámites en las liquidaciones provisionales de oficio y, por otra parte, la inclusión en la Norma Foral General Tributaria de una nueva Disposición Adicional que exige que la referencia catastral aparezca en los contratos o documentos tanto públicos como privados.

## CAPÍTULO I NORMA FORAL GENERAL TRIBUTARIA

Artículo 1. Modificación de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

Se modifican las siguientes disposiciones de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava:

Uno. El artículo 127 queda redactado de la siguiente forma:

“Artículo 127. Procedimiento de liquidación iniciado de oficio.

1. En los supuestos en los que la Administración tributaria hubiere requerido al obligado tributario para que efectúe la presentación de autoliquidaciones o declaraciones que no hubiere realizado en el plazo reglamentariamente establecido, se podrá iniciar por aquélla, una vez transcurrido un mes desde el día siguiente al de la notificación del requerimiento, el procedimiento para la práctica de una liquidación provisional de oficio que cuantifique la deuda tributaria, salvo que en el mencionado plazo se subsane el incumplimiento o se justifique debidamente la inexistencia de la obligación.

2. No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, la Administración tributaria podrá notificar al obligado tributario, junto al requerimiento para que efectúe la presentación de autoliquidaciones o declaraciones que no hubiere realizado en el plazo reglamentario establecido, liquidación provisional cuando no se hayan tenido en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el propio interesado o las aportadas por terceros en cumplimiento de una obligación de declaración establecida con carácter general por el ordenamiento tributario o los datos, antecedentes, signos, índices, módulos y demás elementos de que disponga la Administración tributaria. En este caso la liquidación provisional remitida por la Administración empezará a surtir efectos una vez transcurrido un mes desde el día siguiente al de la notificación conjunta del requerimiento y liquidación provisional.

Ahora bien, si en el citado plazo de un mes el obligado tributario subsana el incumplimiento o justifica debidamente la inexistencia de la obligación, la citada liquidación provisional quedará sin efecto y así lo deberá declarar y notificar la Administración tributaria.

3. Con carácter previo a la práctica de la liquidación provisional a que se refiere el apartado 1 anterior, la Administración notificará al obligado tributario propuesta de liquidación para que alegue lo que convenga a su derecho. Dicho trámite no resultará necesario cuando no se hayan tenido en cuenta otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el propio interesado a través de autoliquidaciones y contestaciones a requerimiento previo o que las aportadas por terceros en cumplimiento de una obligación de declaración establecida con carácter general por el ordenamiento tributario.

Lo dispuesto en el párrafo anterior no será necesario en los supuestos a que se refiere el apartado 2 de este artículo.

4. La determinación de la deuda tributaria se realizará en base a los datos, antecedentes, signos, índices, módulos y demás elementos de que disponga la Administración tributaria y que sean relevantes al efecto.

5. Aurreko idatz zatietan xedatutakoa eragotzi gabe, Zerga Administrazioak behin-behineko likidazio gehiago egin ahal izango ditu foru arau honetako 126. artikuluko 5. idatz zatian xedatutakoaren arabera.”

Bi. Beste xedapen gehigarri bat txertatu da, hamaseigarrena; hona:

“Hamaseigarrena. Katastroko erreferentzia.

1. Ondasun higiezin katastroko erreferentzia agertu behar da higiezin jabaria eta haien gaineko gainerako eskubide errealak xede dituzten gertakari, egintza edo negozioak jasotzen dituzten tresna publikoetan, judiziozko manamendu eta ebazpenetan, administrazio espediente eta ebazpenetan eta gainerako agiri guztietan, bai eta higiezinak errentatzeko eta haien erabilera zeinahi tituluren bidez lagatzeko kontratuetan, energia elektrikoa hornitzeko kontratuetan, proiektu teknikoetan eta arau bidez zehazten diren ondasun higiezin inguruko gainerako agiri guztietan ere. Halaber, Jabetza Erregistroan agerraraziko da legean ezarritako kasuetan.

2. Honako hauetan ez da katastroko erreferentzia agerrarazi beharko:

a) Berme eskubide errealen kitapena agerrarazten duten agirietan.

b) Zuzenbide Publikoko zorrak kobratzeko neurriak hartzeko edo deuseztatzeko administrazio egintzetan.

c) Zergabilketako araudian ezarritako ordainketa gerorapenak edo zatiketak xede dituzten prozeduretan, eta zergen arloko egiaztapen, ikerketa eta likidazio prozeduretan, Zerga Administrazioak erreferentzia lehendik ere ezagutzen badu.

d) Premiamendu prozeduretan emandako epai ebazpenak edo administrazio ebazpenak betetzeko eta betearazteko egiten diren oharretan.

3. Arabako Lurralde Historikoan eskumena edo jurisdikzioa duten notario, erregistratzaile eta epai zein administrazio organo eta agintariak, ondasun higiezin baten aldaketaren bat agerian jartzen duen egintza, negozio edo prozeduraren bat aurkezten zaienean, higiezin behar bezala identifikatzeko eskatu behar dute, hau da, katastroko erreferentzia jartzeko, arauz ezartzen den bezala, eragin erreala duten egintza edo negozioen eta Higiezin Katastroaren arteko koordinazioa bermatzeko.

4. Honako hauek nahitaez aurkeztu behar dute ondasun higiezin katastroko erreferentzia:

a) Ondasun higiezin bat ukitzen duen prozedura bideratzeko eskumena duen agintaritzak judicial edo administrazioaren aurrean, ondasun higiezin horien gaineko eskubide errealen edo eragina duten eskubideen titularrek.

b) Notarioaren aurrean, higiezinaren gainean eratutako egitate, egintza edo negozioa agerrarazten duen notario agiria eskatzen edo egilesten dutenek.

c) Jabetza Erregistroan, erregistratzaileari ondasun higiezin gaineko erregistro idazpena egiteko eskatzen diotenen.

d) Xedapen honetako 1. idatz zatian azaltzen den hornidura ematen duten konpainien aurrean, hornidura horiek kontratatzen dituztenek, eta higiezinaren erabilaren errentamendu edo lagapen kontratuetan, errentatzaile edo lagatzaileek.

e) Aurreko paragrafoetan ezarritako kasuetatik kanpo, alderdiek edo interesdunek erreferentzia hori beren kabuz agerraraziko dute egilesten edo egiten dituzten agirietan.

5. Katastroko erreferentzia hainbatek aurkeztu behar badute, betebeharrak hori batek betetzeko gero zergapeko guztiek betetzat joko da.”

## II. KAPITULUA

### PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

2. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarillaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren aldaketa.

5. Sin perjuicio de lo dispuesto en los apartados anteriores, la Administración tributaria podrá dictar nuevas liquidaciones provisionales conforme a lo dispuesto en el apartado 5 del artículo 126 de esta Norma Foral.”

Dos. Se añade una nueva Disposición Adicional, la Decimosexta, con el siguiente contenido:

“Decimosexta. Referencia catastral.

1. La referencia catastral de los bienes inmuebles deberá figurar en los instrumentos públicos, mandamientos y resoluciones judiciales, expedientes y resoluciones administrativas y en los documentos donde consten los hechos, actos o negocios de trascendencia real relativos al dominio y demás derechos reales, contratos de arrendamiento o de cesión por cualquier título del uso del inmueble, contratos de suministro de energía eléctrica, proyectos técnicos o cualesquiera otros documentos relativos a los bienes inmuebles que se determinen reglamentariamente. Asimismo, se hará constar en el Registro de la Propiedad, en los supuestos legalmente previstos.

2. No será preciso hacer constar la referencia catastral en:

a) Los documentos en que conste la cancelación de derechos reales de garantía.

b) Los actos administrativos por los que se adopten o cancelen medidas tendentes a asegurar el cobro de deudas de derecho público.

c) Los procedimientos que tengan por objeto los aplazamientos o fraccionamientos de pago regulados en la normativa recaudatoria y en los procedimientos de comprobación, investigación y liquidación tributaria, cuando dicha referencia sea ya conocida por la Administración tributaria.

d) Las anotaciones que deban practicarse en el Registro de la Propiedad en cumplimiento y ejecución de una resolución judicial o de una resolución administrativa dictada en procedimiento de apremio.

3. Los Notarios, Registradores, Órganos u Autoridades judiciales o administrativas, con demarcación o jurisdicción en el Territorio Histórico de Álava, ante quienes se presenten actos, negocios o procedimientos en los que se ponga de manifiesto cualesquiera alteraciones de los bienes inmuebles, deberán solicitar que se les acredite debidamente la identidad de los inmuebles objeto de los mismos con la referencia catastral, en la forma que se establezca reglamentariamente, al objeto de garantizar la coordinación entre los actos o negocios con trascendencia real y el Catastro Inmobiliario.

4. Están obligados a aportar la referencia catastral de los bienes inmuebles:

a) Ante la autoridad judicial o administrativa competente para instruir o resolver un procedimiento que afecte a los bienes inmuebles, los titulares de derechos reales o con trascendencia real sobre los citados bienes inmuebles.

b) Ante el Notario, los requirentes u otorgantes del documento notarial en el que conste el hecho, acto o negocio constituido sobre el inmueble de que se trate.

c) Ante el Registro de la Propiedad, quienes soliciten del registrador la práctica de un asiento registral relativo a bienes inmuebles.

d) Ante las compañías prestadoras del suministro a que se refiere el apartado 1 de esta disposición, quienes contraten dichos suministros y, en los contratos privados de arrendamiento o de cesión por cualquier título del uso del inmueble, los arrendadores o cedentes.

e) Fuera de los supuestos previstos en los párrafos anteriores, las partes o interesados consignarán por sí la citada referencia en los documentos que otorguen o expidan.

5. Si fueran varios los obligados a aportar la referencia catastral, cumplida la obligación por uno, se entenderá cumplida por todos los obligados que pudieran concurrir con aquél.”

## CAPÍTULO II

### IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS

Artículo 2. Modificación de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

LEHENENGOA. Hainbat aldaketa egin dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauan (2010eko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko dituzte ondorioak):  
Bat. 9. artikuluko 7. zenbakia honela geratu da:

“7. Estatuko Loteria eta Apustu enpresa Erakunde Publikoak edo autonomia erkidegoetako organo edo entitateek antolatutako loteria eta apustu sariak, Gurutze Gorriak antolatutako zozketetan irabazitako sariak eta Itsuen Erakunde Nazionalari baimendutako jokoen modalitateetan irabazitakoak.

Halaber, Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko beste estatu batzuetan irabazteko asmorik gabe gizarte edo laguntza lanetan ari diren erakunde publikoek edo entitateek antolatzen dituzten loteria, apustu eta zozketetako sariak, baldin eta beraien helburuak aurreko paragrafoan azaldu diren erakundeek bezalakoak badira.”

Bi. 9. artikuluari 33. zenbakia gehitu zaio; hona:

“33. Askatasun eta eskubide demokratikoen defentsan eta haiek aldarrikatzean gertatutako heriotzen eta lesio ezintasun-eragileen kalte-ordainak, Memoria Historikoaren abenduaren 26ko 52/2007 Legean ezarritakoak.”

Hiru. 16. artikuluko b) letra aldatu da eta honela geratu da:

“b) Langabezia prestazioak eta langile autonomoek jarduerari uzteagatik jasotzen dituztenak.”

Lau. 37. artikuluari 3. idatz zatia gehitu zaio; hona:

“3. Jasotako dibidenduak ez dira sartuko zergaldiko errentan, baldin eta erakunde banatzaileari higiezin merkatuko inbertsioetako sozietate anonimo kotizatuen zerga araubidea aplikatu zaion ekitaldietako mozkin edo erreserben ondoriozkoak badira.”

Bost. 49. artikuluko 1. idatz zatiko a) letrari paragrafo bat gehitu zaio, azkena; hona:

“Higiezin merkatuko inbertsioetako sozietate anonimo kotizatuen zerga araubidea aplikatzea hautatu duen sozietate baten kapitalaren partaidetza eskualdatuta lortzen den ondare irabazia salbuetsita egongo da; dena dela, salbuespenak muga dauka, hain zuzen ere eragiketa honen emaitzako diferentzia positiboa: eskuraketa balioaren % 10a erakundeak zerga araubide hori aplikatu duen partaidetza ukantzako urteen kopuruaz biderkatu eta horren emaitzari foru arau honetako 37. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoa aplikatuta zergadunaren errentan sartu ez diren dibidenduen zenbatekoa kendu. Hala ere, eskualdatzailea lotutako erakundeak izan bada (Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 5eko 24/1996 Foru Arauko 16. artikuluan ezarritakoaren arabera), partaidetza eskualdatuta lortutako ondare irabazia ez da egongo salbuetsita, eskualdatzaileak izandako galera berdindu arte. Eskualdaketak ondare galera sortu badu, hauxe bakarrik konputatuko da: partaidetza eskualdatu aurreko urtean jasotako dibidenduetatik zergadunaren errentan sartu ez diren zenbatekoa gainditzen duen kopurua.”

Sei. 106. artikuluari 5. idatz zatia gehitu zaio; hona:

“5. Zergaren autoliquidazioa aurkezten denean sozietateak urriaren 26ko 11/2009 Legean ezarritako betekizunak ez bete arren, zergadunek foru arau honetako 37. artikuluko 3. idatz zatian eta 49. artikuluko 1. idatz zatiko a) letrak azken paragrafoan xedatutakoa aplikatuko dute. Betekizun horiek ez badira betetzen Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 5eko 3/1996 Foru Arauko 122 duodezies artikuluko 24. idatz zatian ezarritako epealdian, zergadunak autoliquidazio osagarria aurkeztu behar du aipatu manuetan ezarritakoaren aplikazioaren ondoreak zuzentzeko. Autoliquidazio osagarri hau baldintzak betetzen ez direnetik ez-betetzea gertatzen den

PRIMERO. Con efectos a partir del 1 de enero de 2010, se introducen las siguientes modificaciones en la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:  
Uno. El número 7º del artículo 9 queda redactado en los siguientes términos:

“7.º Los premios de las loterías y apuestas organizadas por la entidad pública empresarial Loterías y Apuestas del Estado o por los órganos o entidades de las Comunidades Autónomas, así como de los sorteos organizados por la Cruz Roja y de las modalidades de juegos autorizadas a la Organización Nacional de Ciegos.

Igualmente, los premios de loterías, apuestas y sorteos organizados por organismos públicos o entidades que ejerzan actividades de carácter social o asistencial sin ánimo de lucro establecidos en otros Estados miembros de la Unión Europea o del Espacio Económico Europeo y que persigan objetivos idénticos a los de los organismos o entidades señalados en el párrafo anterior.”

Dos. Se añade un nuevo número, el 33º, al artículo 9, con el siguiente contenido:

“33º Las indemnizaciones por muerte y por lesiones incapacitantes acaecidas en defensa y reivindicación de las libertades y derechos democráticos, previstas en la Ley 52/2007, de 26 de diciembre, de Memoria Histórica.”

Tres. Se modifica la letra b) del artículo 16, que queda redactada de la siguiente forma:

“b) Las prestaciones por desempleo y por cese de actividad de los trabajadores autónomos.”

Cuatro. Se añade un nuevo apartado 3 al artículo 37 con la siguiente redacción:

“3. No se integrarán en la renta del período impositivo los dividendos percibidos que procedan de beneficios o reservas de ejercicios en los que a la entidad que los distribuye le haya sido de aplicación el régimen fiscal previsto para las Sociedades Anónimas Cotizadas de Inversión en el Mercado Inmobiliario.”

Cinco. Se añade un nuevo párrafo, que será el último, a la letra a) del apartado 1 del artículo 49 con la siguiente redacción:

“Cuando se trate de la transmisión de la participación en el capital de las sociedades que hayan optado por la aplicación del régimen fiscal previsto para las Sociedades Anónimas Cotizadas de Inversión en el Mercado Inmobiliario, si resultase una ganancia patrimonial, estará exenta con el límite de la diferencia positiva entre el resultado de multiplicar el 10 por ciento del valor de adquisición por el número de años de tenencia de la participación durante los que la entidad ha aplicado dicho régimen fiscal, y el importe de los dividendos que no se hayan integrado en la renta del contribuyente por aplicación de lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 37 de esta Norma Foral. No obstante, la ganancia patrimonial generada en la transmisión de la participación no estará exenta en el caso de que se hubiese adquirido a una entidad vinculada en los términos establecidos en el artículo 16 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, hasta el importe de la pérdida que obtuvo dicha entidad en la transmisión de esa participación. Si resultase una pérdida patrimonial, sólo se computará la parte que exceda del importe de los referidos dividendos que no hayan sido integrados en la renta del contribuyente que se hayan percibido durante el año anterior a la transmisión de la participación.”

Seis. Se añade un nuevo apartado 5 al artículo 106 con la siguiente redacción:

“5. Los contribuyentes aplicarán lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 37 y en el último párrafo de la letra a) del apartado 1 del artículo 49 de esta Norma Foral aun cuando, en el momento en que presenten la autoliquidación del Impuesto, la sociedad no cumpla los requisitos exigidos en la Ley 11/2009, de 26 de octubre. Si dichos requisitos no se cumplieran en el plazo señalado en el apartado 3 del artículo 122 duodezies de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades, el contribuyente deberá presentar una autoliquidación complementaria rectificando las consecuencias de la aplicación de dichos preceptos. Esta autoliquidación complementaria se presentará

zergaldiko autoliquidazioa aurkezteko arauzko epealdia amaitu arte aurkez daiteke.”

**BIGARRENA.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauari hogeita batgarren xedapen gehigarria txertatu zaio (2010eko azaroaren 1etik aurrera egiten diren kapital txikipenei eta jaulkipen primen banaketei aplikatuko zaie); hona:

“Hogeita batgarrena. Kapital txikipenak, Sozietateen gaineko Zergaren karga tasa orokorra aplikatzen ez zaien kapital aldakorreko inbertsioko ekarpenak itzultzeko edo jaulkipen prima banatzeko.

1. Foru arau honetako 37.1.e) artikuluan eta 44.2.a) artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoa gorabehera, Sozietateen gaineko Zergaren karga tasa orokorra aplikatzen ez zaien kapital aldakorreko inbertsio sozietateek (Taldea Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legeak araupetutakoek) kapital txikipena egiten badute ekarpenak itzultzeko edo jaulkipen prima banatzeko, bazkideek edo partaideek integratu beharreko errenta honela zehaztuko da:

a) Kapital txikipenaren helburua ekarpenak itzultzea bada, integratu beharreko errenta txikipenaren zenbatekoa edo jasotako ondasun eta eskubideen merkatuko balio arrunta da (higigarrien kapitalaren etekina izango da, foru arau honetako 37.1 artikuluko a) letran ezarritakoaren arabera); errentaren gehieneko kopurua bi hauetako handiena izango da:

- Akzioen likidazio balioaren gehikuntza, eskuratu edo harpidetu direnetik sozietatearen kapitala txikitu arte.

- Kapital txikipena banatu gabeko mozkinen ondoriozkoa bada, mozkinen zenbatekoa. Hori dela eta, kapital txikipenak, helburua gorabehera, lehenbizi banatu gabeko mozkinetatik datorren sozietatearen kapitalaren zatiari eragingo dio, hura ezabatu arte.

Mugaz gaindiko kopurua akzioen eskuraketa baliotik kenduko da, foru arau honetako 44.2.a) artikuluko bigarren paragrafoko erregelak aplikatuta, hura ezabatu arte. Gainera, gaindikunik badago, mota guztietako erakundeen funts propioen partaidetzaren ondorioz lortutako higigarrien kapitalaren etekintzat hartuko da, lehen jaulkipen prima banatzeko ezarritako moduan.

Letra honetan araupetutako higigarrien kapitalaren etekinei inolaz ere ezin zaie aplikatu foru arau honetako 9.25 artikuluan ezarritako salbuespena.

b) Kapital aldakorreko inbertsio sozietateen akzioen jaulkipen primak banatzen badira, lortutako zenbateko osoa integratu behar da, eta ezin da aplikatu foru arau honetako 37.1 e) artikuluan ezarritakoa, hau da, akzioen eskuraketa balioaren murrizpena.

2. 1. idatz zatian xedatutakoa, halaber, beste estatu batean erregistratuta dauden kapital aldakorreko inbertsioko sozietateei dagozkien talde inbertsioko erakundeei aplikatuko zaie, inbertitzaileren multzo murriztuak direla eta, akzioak eskuratu, laga edo erreskatatzeko izan dezaketen edozein muga gorabehera. Nolanahi ere, higigarrien baloreetako talde inbertsioko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/CE Zuzentarauak babestutako sozietateei aplikatu ahalko zaie.”

**HIRUGARRENA.** Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko ondoko xedapenak aldatu dira (2011ko urtarrilaren 1etik sortuko dituzte ondorioak):

Bat. 50. artikuluko 1. idatz zatiko azken paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“Idatz zati honetan ezarritako araubidea ez da aplikatuko zergadunak talde inbertsioko akzioen edo partaidetzak itzulita edo

en el plazo que media entre la fecha en que se produzca el incumplimiento y la finalización del plazo reglamentario de autoliquidación correspondiente al período impositivo en que se produzca dicho incumplimiento.”

**SEGUNDO.** Con efectos para las reducciones de capital y distribuciones de la prima de emisión efectuadas a partir del 1 de noviembre de 2010 se añade una Disposición Adicional, la Vigésimoprimer, en la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, con el siguiente contenido:

“Vigésimoprimer. Reducciones de capital con devolución de aportaciones y distribuciones de la prima de emisión realizadas por sociedades de inversión de capital variable no sometidas a tipo general de gravamen del Impuesto sobre Sociedades.

1. No obstante lo previsto en el artículo 37.1.e) y en el segundo párrafo del artículo 44.2.a) de esta Norma Foral, en supuestos de reducción de capital que tenga por finalidad la devolución de aportaciones y distribuciones de la prima de emisión de acciones, realizadas por sociedades de inversión de capital variable reguladas en la Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de Instituciones de Inversión Colectiva, que no estén sometidas a tipo general de gravamen en el Impuesto sobre Sociedades, la renta a integrar por sus socios o partícipes se determinará con arreglo a lo siguiente:

a) En los supuestos de reducción de capital que tenga por finalidad la devolución de aportaciones, la renta a integrar será el importe de ésta o el valor normal de mercado de los bienes o derechos percibidos, que se calificará como rendimiento del capital mobiliario de acuerdo con lo previsto en la letra a) del artículo 37.1 de esta Norma Foral, con el límite de la mayor de las siguientes cuantías:

- El aumento del valor liquidativo de las acciones desde su adquisición o suscripción hasta el momento de la reducción de capital social.

- Cuando la reducción de capital proceda de beneficios no distribuidos, el importe de dichos beneficios. A estos efectos, se considerará que las reducciones de capital, cualquiera que sea su finalidad, afectan en primer lugar a la parte del capital social que provenga de beneficios no distribuidos, hasta su anulación.

El exceso sobre el citado límite minorará el valor de adquisición de las acciones afectadas, de acuerdo con las reglas del segundo párrafo del artículo 44.2.a) de esta Norma Foral, hasta su anulación. A su vez, el exceso que pudiera resultar se integrará como rendimiento del capital mobiliario procedente de la participación en los fondos propios de cualquier tipo de entidad, en la forma prevista para la distribución de la prima de emisión.

En ningún caso resultará de aplicación la exención prevista en el artículo 9.25 de esta Norma Foral a los rendimientos del capital mobiliario regulados en esta letra.

b) En los supuestos de distribución de la prima de emisión de acciones de sociedades de inversión de capital variable, se integrará la totalidad del importe obtenido, sin que resulte de aplicación la minoración del valor de adquisición de las acciones previsto en el artículo 37.1.e) de esta Norma Foral.

2. Lo dispuesto en el apartado 1 se aplicará a organismos de inversión colectiva equivalentes a las sociedades de inversión de capital variable que estén registrados en otro Estado, con independencia de cualquier limitación que tuvieran respecto de grupos restringidos de inversores, en la adquisición, cesión o rescate de sus acciones; en todo caso resultará de aplicación a las sociedades amparadas por la Directiva 2009/65/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 13 de julio de 2009, por la que se coordinan las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas sobre determinados organismos de inversión colectiva en valores mobiliarios.”

**TERCERO.** Con efectos a partir de 1 de enero de 2011, se modifican las siguientes disposiciones de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

Uno. Se modifica el último párrafo del apartado 1 del artículo 50 que queda redactado en los siguientes términos:

“El régimen previsto en este apartado no resultará de aplicación cuando, por cualquier medio, se ponga a disposición del contri-

eskualdatuta lortutako zenbatekoa jasotzen badu. Gainera, araubide hori kasu honetan ere ezin aplikatu izango da: Talde Inbertsioko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Araudiko 49. artikuluan (Araudia azaroaren 4ko 1.390/2005 Errege Dekretuak onetsi du) ezarritakoaren arabera kotizatzen duten inbertsio funtsak diren talde inbertsioko erakundeen ondarearen adierazgarri diren partaidetzak edo halako sozietateen akzioak itzultzen, eskualdatzen, harpidetzen edo eskuratzen direnean.”

Bi. 50. artikuluko 2. idatz zatiko lehen paragrafoa honela geratu da:

“2. Aurreko idatz zatian ezarritako araubidea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/CE Zuzentarauak (higigarrien baloreetako talde inbertsioko erakunde batzuei buruzko lege, arau eta administrazio xedapenak koordinatu dituenak) araupetutako talde inbertsioko erakundeetatik (foru arau honetako 54. artikuluan ezarritakoak ez beste batzuk) Europar Batasuneko estatu batean eratu eta egoiliartuta daudela egoitza Espainian duten erakundeek merkaturatzeko asmoarekin Baloreen Merkatuaren Nazio Batzordearen erregistro berezian inskribatuta-koetako bazkideei edo partaideei aplikatuko zaie.”

Hiru. 75. artikulua honela geratu da:

“75. artikulua. Zerga batera ordaintzeagatik txiki-pena.

1. Foru arau honetako 99. artikuluan xedatutakoaren arabera baterako zerga ordainketa hautatuz gero, urteko autoliquidazioaren zerga oinarritik 4.033 euro ken daitezke.

2. Aurreko idatz zatian aipatutako txiki-pena 3.503 eurokoa izango da foru arau honetako 100. artikuluko 2. idatz zatian adierazitako familia unitateen autoliquidazioan.”

Lau. 77. artikuluko 1. idatz zatia honela geratu da:

“1. Likidazio oinarri orokorra ondoko eskalan agertzen diren tasekin kargatuko da:

LIKIDAZIO OINARRI OROKORRA, GEHIENEZ BASE LIQUIDABLE GENERAL HASTA €	KUOTA OSOA CUOTA ÍNTEGRA €	LIKIDAZIO OINARRIAREN GAINERAKOA, GEHIENEZ RESTO BASE LIQUIDABLE HASTA €	APLIKATU BEHARREKO TASA TIPO APLICABLE EHUNEKOA/PORCENTAJE
0	0	14.860	23,00
14.860	3.417,80	14.860	28,00
29.720	7.578,60	14.860	35,00
44.580	12.779,60	19.100	40,00
63.680	20.419,60	Hortik aurrera/En adelante	45,00”

Bost. 80. artikulua honela geratu da:

“80. artikulua. Kenkari orokorra.

Zergadunek 1.327 euroko kenkaria aplikatuko dute urtean. Kenkari hau autoliquidazio guztietan aplikatuko da”.

Sei. 81. artikuluko 1. eta 2. idatz zatiak honela geratu dira:

“1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko kenkari hau aplikatuko da:

- a) 558 euro urtean, lehenengoarengatik.
- b) 691 euro urtean, bigarrenarengatik.
- c) 1.168 euro urtean, hirugarrenarengatik.
- d) 1.380 euro urtean, laugarrenarengatik.
- e) 1.804 euro urtean, bosgarrenarengatik eta hurrengo bakoitzarengatik.

2. Zergadunarekin bizi den eta sei urte baino gutxiago dituen ondorengo ahaide bakoitzarengatik, aurreko idatz zatiaren arabera dagokion kenkariaren gainera, urtean 319 euroko kenkari osagarria aplikatuko da.”

buyente el importe derivado del reembolso o transmisión de las acciones o participaciones de instituciones de inversión colectiva. Tampoco resultará de aplicación el citado régimen cuando la transmisión o reembolso o, en su caso, la suscripción o adquisición tenga por objeto participaciones representativas del patrimonio de instituciones de inversión colectiva a que se refiere este artículo que tengan la consideración de fondos de inversión cotizados o acciones de las sociedades del mismo tipo conforme a lo previsto en el artículo 49 del Reglamento de la Ley 35/2003, de 4 de noviembre, de Instituciones de Inversión Colectiva, aprobado por el Real Decreto 1309/2005, de 4 de noviembre.”

Dos. El primer párrafo del apartado 2 del artículo 50 queda redactado en los siguientes términos:

“2. El régimen previsto en el apartado anterior será de aplicación a los socios o partícipes de instituciones de inversión colectiva, reguladas por la Directiva 2009/65/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 13 de julio de 2009, por la que se coordinan las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas sobre determinados organismos de inversión colectiva en valores mobiliarios, distintas de las previstas en el artículo 54 de esta Norma Foral, constituidas y domiciliadas en algún Estado miembro de la Unión Europea e inscritas en el registro especial de la Comisión Nacional del Mercado de Valores, a efectos de su comercialización por entidades residentes en España.”

Tres. El artículo 75 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 75. Reducción por tributación conjunta.

1. En los supuestos en que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 99 de esta Norma Foral se opte por la tributación conjunta, la base imponible general se reducirá en el importe de 4.033 euros anuales por autoliquidación.

2. La reducción señalada en el apartado anterior será de 3.503 euros en el caso de las unidades familiares señaladas en el apartado 2 del artículo 100 de esta Norma Foral.”

Cuatro. El apartado 1 del artículo 77 queda redactado de la siguiente forma:

“1. La base liquidable general será gravada a los tipos que se indican en la siguiente escala:

Cinco. El artículo 80 queda redactado de la siguiente forma:

“Artículo 80. Deducción general.

Los contribuyentes aplicarán una deducción de 1.327 euros anuales. Esta deducción se practicará por cada autoliquidación.”

